

3 GAIA: IRUDIA

Irudia eta errealitatea

Beharbada irudiek duten ezaugarri nabarmena, errealitatea irudikatzen gaitasuna da: zenbait gertaera, pertsona, objektu eta leku gure oroimenaren parte dira nahiz eta errealitate horiekin kontaktu zuzenik ez izan. Munduaz dugun ezagupena, neurri handi batean, ezagupen baldintzatua da: telebistako erreportajeak, egunkarietako argazkiak edo lekuko baten adierazpenak, gertaerei buruzko informazioa emateaz gain gertaera horiek berregituratzera ere bultzatzen gaituzte. Mundua irudien bidez ezagutzeko esperientzia mota hori *esperientzia bikarioa* deitzen dugu.

Irudiaren eta ordezkatzeko duen errealitatearen arteko lotura 'natural' horrek, irudia *munduaren egoera mugatu bati buruz egiazko edo gezurrezko zerbait baieztatzen enuntziatu* gisa sarritan erabiltzen den tresna bihurtzen du. Gaurko gizartean hain hedatutako erabilera *erreferentzial* horrek, irudia eta ordezkatzeko duen errealitatea identifikatzera bultzatzen gaitu. Sarritan, errealitate zuzena eta objektiboa erakutsiko balute bezala hartzen ditugu irudiak, ekoizpen ikoniko guztien atzetik dauden aukeratzeko eta eraldatzeko eragiketak ahanztiz.

Kultura baten eredu ikonografiko nagusiek eta garai historikoak irudien ekoizpena baldintzatzen dute. Gehienetan, irudia eta bere erreferentziaren arteko 'antzekotasuna' frogatzeko, ez dugu irudia esperientzia zuzenarekin alderatzen baizik eta, errealitatearen irudikapen zehatza balira hartzen ditugun beste irudiekin alderatzen dugu. Irudien ekoizpena eta irudien pertzepzioa edo irakurketa hautatze-eragiketak dira, eta gure ikus oroimenean metatutako irudiei buruzko ezagutzak eragin handia izango dute eragiketa horietan.

Irudia definitzeko ekarpenak ugariak dira. Horien artean honako hauek azpimarra daitezke:

"Ikus komunikazioaren euskarri bat, ingurune optikoaren (pertzepzio-unibertsoa) zati bat gauzatzen duena, luzaroan iraunkorra dena eta masa-komunikabideen osagai nabarmenatariko bat dena" (Moles: 1975).

"Zeinu ikonikoak (irudia) gertakari grafikoaren arteko erlazioen eredu bat eratzen du, objektua ezagutzen eta gogoratzean eraikitzen dugun erlazioen ereduarekin homologoa dena. (...) Zeinu ikonikoak zerbaitekin ezaugarri komunak baditu ez da objektuarekin baizik eta objektuaren pertzepzio-ereduarekin" (Eco: 1976).

Irudia bi edo hiru dimentsioko espazio batean nahita ala zoriz antolatutako ikus bizigarrien multzoa da. Irudiak hartzailearengan pizten duen pertzepzio-prozesua, ikus bizigarri horiek, bakoitzak bere aldetik, bideratutako lituzketen pertzepzio-prozesu guztien batuketara soila baino zerbait desberdina da. Pertzepzio-prozesu hori, pertzepzio-ingurune naturalaren zati zehaztatetik datozen ikus bizigarriek pizten duten pertzepzio-prozesuaren antzekoa ala desberdina izan daiteke (Alonso eta Matilla: 1990).

Irudien konbentzioak

Mendebaldeko zibilizazioan, irudiaren eta mundu ikusgaiaren artean bereizteko dugun zailtasuna kontuan harturik, irudia eta munduaren pertzepzio zuzenaren artean bereizten laguntzen duten zenbait alderdi aipatzea komenigarria izango da.

Irudia, artifizio tekniko batzuen bidez egin dago, (pintzelkadak, puntuzko bilbeak, lerroak) hauek "irudikapena eta jatorrizkoa bereizten dute eta gainera, ilusio optikoaren euskarri fisikoa den gainazalaren existentzia agerian uzten dute. Gertatzen dena da, artifiziora ohitu garena eta konbentzio teknikoak zein euskarria ahanztu ditugula. Gure begien aurrean dagoela jakin arren, soilik ohartzen gara euskarriaz, gainazalean noizbehinka agertzen diren distirek, marrek edo zimurrek -hau da, irudiaren irakurgarritasuna kaltetzen duten zarata optikoak- beraren presentzia lotsagabekeriak ezagutarazten digutenean. Aitzitik, euskarria 'isila' denean, behatzaileak eraginkortasunez erreprimitzen du euskarriarekiko duen kontzientzia, baina, irudi oso landuetan edota azkar 'kontsumitzen' diren irudietan, artifizio hauek oharkabean pasatzen dira" (Gubern: 1987).

Irudiak ikusgai bihurtzen dituzten baliabide grafikoak (ehundurak, puntuak, lerroak, koloreak...) eta *ekoizteko baliabideak* (argazkigintza, zinea, marrazkigintza...) lehenengo kodeketa ikonikoa zehazten dute. Baliabide ikoniko bakoitzaren izaerak irudiaren ezaugarriak baldintzatzen ditu. Irudiak gauzatzeko baliabide

tekniko desberdinak erabiltzen direla jakiteak errealitate eta irudia bereizten laguntzen du. Ondoren, irudietan agertzen diren alderdi konbentzional batzuk laburki aztertuko ditugu.

Irudia, irudikatu nahi den ikus inguruaren zati zehatz baten hautaketa da. Hautaketa hau, *enkoadratzearen* bidez egiten da. Enkoadratzea eta gure begiek hartzen duten ikus-eremua identifikatzeko joera izan arren, koadroa -eta batez ere koadro angeluzuzena- ez da ikusmenaren eremu naturalari egokitzen zeren gizakiaren ikusmen binokularrak ertz biribilduak dituen ikus-eremua eskaintzen baitigu, lepo eta begien giharren mugikortasunari esker enkoadratze estatikoaren mugak gaindituz.

Desberdintasun hauek nabarmenak dira: irudiak erabateko araztasuna agertzen du baina ikusmen periferikoak zehaztugabeko ertzak ditu. "Izan ere, gure pinturek eta argazkiek eremuaren erdiko aldeak -aratzak direnak- ebakitzen edo hautatzen dituzte, baita 180 graduko panoramika handiak irudikatzen dituztenean ere, baina pertsonaren ikusmenak duen hautatzeko gaitasunak ezin du ezaugarri hori eskuratu nahiz eta araztasunezko egoeretan egon" (Gubern: op. cit.).

Irudian, eta batez ere pinturan, gertatzen den beste faltsukeria bat irudikatutako objektu guztien araztasuna da: nahiz eta jakin kristalinoa ezin dela egokitu distantzia desberdinetan kokatutako objektu guztien ikuspen aratza eskaintzeko, araztasun maila bera erabiliz irudikatzen dira. "Mendebaldeko pinturaren marko angeluzuzenak, geroago argazkigintzak eta zineak bereganatu dutena, ikusmen naturalaren formatua eta ezaugarriak era nabarian hausten ditu. Baina, gure testuinguruan hain sendoki errotoa egonik eta haurtzarotik ezaguna izanik ere, konbentzio kultural horrek ez gaitu harritzen" (Gubern: op. cit.).

Laburbilduz, ikus ingurunearen zati bat enkoadratzeak hautatzea dakar eta beraz, irudiaren egileak bere komunikazio-helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen ez duen guztia baztertzea, hots, iruditik kanpo uztea. Era berean, ikuslearen arreta zentratzeko ere erabiltzen da. Horregatik koadroaren muga barnean dagoen guztia esanguratsu bezala har dezakegu.

Baina hautapena ez da irudia ekoizteko baliabidea hautatzerakoan edo ikus ingurunearen zati bat enkoadratzerakoan soilik egiten. *Argia* -ikus mezuen harreran nahitaezkoa eta argazkigintzan edo zinean irudiak sortzeko lehengaia- irudikatu nahi dugun errealitate beraren emaitza oso desberdinak lortzeko manipula daiteken beste faktore bat da. Argiztapen baten itxura 'naturala' edo objektu argiztatuaren alderdi zehatz batzuk nabarmentzea, argazkigintza bezalako baliabide automatikoetan egiten diren eragiketa konplexuen emaitza dira.

Azkenik, beste baliabide batzuk ere aipa daitezke, adibidez, formak, proportzioak, distantziak eta abar itxuragabetzen edo aldatzen dituzten *objektiboan erabilera*. Baita ere objektu eta pertsonen *makillajeak*, *efektu bereziek* (maketa, gardentasun edo baliabide elektronikoen bidez egindako trukapeak) eta abarrek gaur egungo ikus kulturaren errealitatea eta irudikatutakoaren arteko mugak progresiboki lausotzen dituzte.

Irudien komunikazio-ezaugarriak

Aipatutako alderdiez gain, irudien zenbait komunikazio-ezaugarri azpimarratzea interesgarria izango da. Irudia objektu erreal baten irudikapena denean, beraien arteko antzekotasun maila jartzen saia gaitzake. Dena den, faktore kulturelek baldintzatuko dute objektu errealearen eta bere irudiaren artean hauteman dezakegun antzekotasun gradua. Horrela, frogatua izan da argazkigintzarekin trebaturik ez dauden kulturetan, argazkietan irudikatutako objektuen identifikazioak guk egin behar ez dugun ahalegina eskatzen duela, zeren eta guk haurtzarotik izandako bizi-esperezien bidez argazkiak deszifratzen ikasi baitugu.

Irudia eta bere erreferente errealearen arteko antzekotasun edo errealismo maila zehazteko asmoz, *ikonotasun* eta *abstrakzioaren* kontzeptuak erabiltzen dira. Irudi ikonikoak errealismo maila handia eskaintzen du. Adibidez, objektu errealearen hiru dimentsioko irudikapena eskala berean eta objektuaren materialak imitatuz eginda, beraren argazkia baino ikonikoagoa izango da; objektuaren argazkia lerroz egindako marrazkia baino ikonikoago. Abstrakzio maila aurkako kontzeptua da: ikonotasun maila handiagoa, abstrakzio maila txikiagoa (Moles: op. Cit.).

Jakina denez, irudiak esangura bakarra edo gehiago eduki ditzake. Irudiak esangura bakarra duenean *monosemikoa* deitzen da: diseinu arkitektonikoak edo trafiko-seinaleak irudi monosemikoak dira. Aitzitik, irudi *polisemikoak* esangura desberdinak ditu. Orokorrean, irudiak bere izaeratik polisemiara jotzen du eta bere esangura zehatza agertzen den *testuinguruaren* menpean dago. Testuingurua zehatza denean irudiaren polisemia murriztuko da.

Irudi orok denotatzen eta konnotatzen du aldi berean. *Denotazio* kontzeptua irudiak objektiboki irudikatzen eta erakusten duenari, hots, oinarrizko edukiari dagokio. *Konnotazio* kontzeptua, berriz, irudiak iradokitzen dituen balore, ideia eta abarrei dagokie. Horrela, irudia denotazio mailan deskriba daiteke agertzen diren elementu guztiak objektiboki azalduz eta konnotazio mailan interpreta daiteke estaliak edo bigarren planoan geratzen diren esangurak agerian utziz.

Irudien komunikazio-funtzioak

Irudiak, emailearen xedearen menpe, sortua izan den baldintza kulturalen menpe, hartzeko egoeren eta abarren menpean egon daitezken funtzio batzuk betetzen ditu. Irudi batek funtzio bat edo gehiago bete ditzake aldi berean. Irudiaren funtzioek ez dute elkar baztertzeko, aitzitik, irudi berean funtzio desberdinak batera ematen dira ia beti, nahiz eta beraietako batek besteak baino garrantzi handiagoa hartu.

Aipatu dugun bezala, koordenatu historikoen edo hartzeko egoeraren aldaketak irudiaren funtzioen aldaketa sortaraz dezake: irudi baten hasierako funtzio nagusia denboraren poderioz eta testuinguru kulturalaren aldaketaren ondorioz desagertu daiteke eta beste funtzio batek har dezake nagusitasuna: adibidez, bere garaian informazioa ematen zuen kartel batek gaur egun batez ere funtzio estetiko bat bete dezake, funtzio informatzailea bigarren planoan geratuz. Irudiak betetzen dituen komunikazio-funtzioen artean, ondorengoak azpimarra ditzakegu:

- *Funtzio informatzailea*: Irudi orok, ekoizpen adierazlea izateagatik, alderdi erreal edo alegiazko bati buruzko informazioa ematen digu eta beraz, funtzio informatzailea betetzen du. Hala ere, funtzio informatzailea nagusia duten irudiek monosemiarako joera argia erakusten dute: azalpen teknikoaren eskuliburuetan agertzen diren argazkiak eta marrazkiak, edo diseinu arkitektoniko bat, funtzio informatzailea nagusia duten irudiak ditugu.
- *Funtzio limurtzailea*: irudi limurtzaileak, baliabide grafiko eta teknikoaren bidez hartzailearengandik nolabaiteko erantzun bat lortu nahi dutenak dira. Portaera ereduak, erreakzio afektiboak eta kontzeptuak sorrarazteko edo aldatzeko erabiltzen dira. Publizitatean eta propagandan erabilitako irudiek funtzio limurtzailea betetzen dute.
- *Funtzio estetikoa*: Batez ere, irudiaren antolakuntza material eta ikusgaiaren gaineko (kolorea, ehundura, pintzelkada, argia, etab.) arreta pizten eta bereganatzen duten irudietan aurkitzen da. Funtzio estetikoak nagusia duten irudiek esangura eta konnotazio ugari sortaraz ditzakete, interpretatzeko mezu irekiak dira, hau da, hartzaileak irudiaren beraren interpretazio desberdinak egin ditzake. Funtzio estetikoak betetzen duten irudiek hartzailearen eskuetan uzten dute interpretatzeko ekimena. Ezaugarri hauek kultura bakoitzak 'artelanak' kontsideratzen dituen irudietan ere aurkitzen ditugu.
- *Funtzio didaktikoa*: Funtzio didaktikoa, berriazko ezaugarriak eduki arren, funtzio informatzaile eta limurtzailearekin oso erlazionatuta dago. Irudi didaktikoak, informazioak eta ezagutzak emateaz gain, portaera ereduak aldatzen ere saiatzen dira. Funtzio estetikoak ez bezala, funtzio didaktikoak esanguraren unibokotasunera, hots, zentzu bakarrera jotzen du. Hartzailearen aldetik deskodetze zuzena bermatzeko, irudiek duten ohiko polisemia maila gutxitu behar da, horretarako hitzezko mezu monosemiko batekin elkartzuz.